

Zer egingo dugu gure baserriarekin

Deia, 1977-08-04.

Baserria da euskaldunen sorlekua.

Denok dugu baserria gertu. Itsasertzean sortu direnak ere ez dute baserria urrun. Menditik jetxi zen itsasoz munduari bira eman zion euskalduna ere.

Eta baserri hau sinbolo gisa erabili dugu:

Hau izan da gure herriaren sorburua, gure hizkuntzaren eta gure ohituren iturri eta herriaren defentsarako Zumalakarregi-ri eta gero Santakruz apaizari gizonak eman dizkiona.

Baserri hau, zoritxarrez, aspaldi hontan goitik behera dator.

Seme-alabak nahiago dute kaleko fabriketara lanera joan, geratzen direnak kalean irabazten diren jornalaren inbiriz geratzen dira, eta zaharrak hiltzen dijoazen bezala ari dira baserri asko hustutzen.

Baserria osorik galduko ote den beldur gara.

Eta baserriarekin, euskal arimaren zati handi bat hilko zaigu.

Dirua da hemen ere erosle. Kalean irabazitako diruak, eta askotan kanpotarrak!, ari dira baserriak erosten. Eta ez euskera berpizteko, gure ohituren jarraile izateko; ezta gure herriaren defentsarako semeak emateko ere; bertan arkitzen dituzten pake eta haize-garbi garestiak erosteko bakarrik datoz.

Eta bitartean, baserria bizi-bide bezala berakadan.

Ba da hontaz arduratzen hasia den bat baino gehiago. Baserriaren estruktura aldatu beharrean da, nonbait, eta orain arte egin izan diran hontarako azterketak. Batzu, pertsonalak, Arabako Abornikanon sortutako "Hauzo-lan" bezala. Instituzio gisakoak ere izan dira: "Zabalegi" Donostian; berriago bat Oronoz-en, Nafarroako Baztanen; Bizkaian ere ba da hontaz arduratzen den talde bat.

Bestalde, oraintxe urten berria da liburu bat: *Esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan*.

Hala ere, baserrietarrari ez zaio behar adina lagundu.

Eta orain, gaur irakurri dugunez, kaletar gazte batzuk nahi dute Arrasate inguruan baserri bat erosi eta bertan esperientzia bat egin.

Poz ematen du gazteak hontarako erakutsi duten joerak.

Baina gauzak egiatan zuzenduko baditugu, baserriaren ekonomi-egitura behar bezala aztertu eta okerrak zuzentzeko bideak asmatu eta lanean jarri behar dira.

Eta hontarako egingo genieke dei bat gure herrialdeetan hontaz arduratu diren gizon eta erakundeei.

Orain arte egin ezin zen lan asko egiteko aukera izango baita laster.

Zertan dira baserriak gaur irauteko eta aberasteko behar dituen laguntzak?

Orain arte hontaz arduratu direnak dute hitza.